

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Uztailaren 8ra arte zabalik izango da suhiltzaileen 10 lanpostuetarako oposizioetan parte hartzeko epea

Hautaketan ezagutzako bi proba egingo dira, fisikoak nahiz psikoteknikoak

Lunes, 08 de junio de 2015

Bihartik aurrera, asteartea, eta uztailaren 8ra arte (azken egun hori barne), Nafarroako Gobernuko zerbitzuko suhiltzaileen hamar lanpostu betetzeko oposizioetan parte hartzeko eskaerak aurkeztu daitezke, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) gaur argitaratutako [deialdi](#)an zehazten denez.

Plazak zati berberetan banatuko dira txanda libreko eta sustapeneko hautagaien artean. Lehen kasuan, hautagaiek 16 urte beteta izan beharko dute eta, gutxienez, eskola-graduatu edo Lehen Gradu LH edo DBHko graduatu; horrez gain, ondoen sailkatutako hautagaiek egingo duten oinarritzko prestakuntza-ikastaroa gainditu beharko dute funtzionario izendatu aurretik.

Eskaerak deialdiari erantsitako eredia errespetatu beharko dute, eta haietan hautagaiek bertan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Eskaera-eredua Internetez eskuratu ahalko da, www.navarra.es webgunean, edo webgune horretako enplegu publikoko atalean. [Eskaerak](#) Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Karlos III. etorbidea, 2, 31002, Iruña), edo Nafarroako Gobernuko Erregistroaren gainerako edozein bulegoetan edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzkoaren, 38.4 artikuluan ezarritako edozein baliabide erabiliz.

Oposizioetatik at geratzen dira, honako era hauetako osasun-arazoak dituzten pertsonak: ikusmen, entzumenekoak, hitz egiteko, osteomuskularra, digestiokoak, arnastekoak, kardiologiakoak, edo gaixotasun psikiatriko, endokrinologo, dermatologiko edo hematologikoak dituztenak, egin beharreko



Suhiltzaileak sua itzaltzen.

lanari eragiten diotenak.

Proba-motak

Hautaketa-faseak hiru proba-mota izango ditu. Lehen, teorikoa, 38 gairi buruzkoa izango da hiru bloketan batuta: Nafarroako legeria, erakundeak eta historia; salbamendua, suteak itzaltzea eta Nafarroako geografia aplikatua eta lanari lotutako gaiei buruzko ezagutza teknikoak (materialak, makinaren elementuak, zirkuitu pneumatikoak, automobilgintzako ibilgailuak, segurtasuna, transformadoreak...).

Hautaketako bigarren fasean ariketa fisikoak gainditu beharko dira, eta haien artean daude: pisua altxatzea, ur-ingurunea menperatzea, oreka-probak, arintasuna, indar erlatiboa eta erresistentzia, bai eta koordinaziokoa ere.

Azkenik, hirugarren proban hautagaiak ariketa psikoteknikoak eta elkarrizketa pertsonalak egingo dituzte lanpostuaren profilari egokitzen zaizkiola erabakitzeko. Azken proba horretan, lehen bi probetan puntuazioa onena eskuratutako txanda bakoitzeko (librea eta sustapenekoa) 30 hautagaiak soilik onartuko dira.

Azken proba hori amaituta, aukeratutako hamar hautagaiak Nafarroako Segurtasun Eskolan emango den oinarrizko prestakuntza-ikastaroa egin beharko dute.